

AMVISAK Nazioarteko Lankidetzako proiektuei lotutako uretako landa-sistemetako espezialisten topaketa batean parte hartu du

Urtero martxoaren 22an egiten den Uraren Mundu Egunak aukera eman die AMVISAKo teknikariei eta ur eta saneamendu proiektuak bultzatzen dituzten erakundeetara –uren udal enpresak eta Gasteizko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak finantzatuta– ezagutzak eta esperientziak trukatzeko. **Hiriak “Uraren landa sistemetarako lankidetzak” aztertzeko jardunaldi teknikoak hartu ditu, eta Latinoamerikako eta Afrikako espezialistak izan dira bertan.**

Jardunaldiari esker, diruz lagundutako proiektuak zein testuinguruetan garatzen diren sakondu ahal izan da, horien helburua ura eskuratzeko giza eskubidea bermatzea izanik. Ura hartzeko, edangarri bihurtzeko eta banatzeko sistemen ezaugarrietatik haratago, sistema horiek ezartzen diren komunitateen prestakuntzari eta ahalduntzeari lotutako gaiak landu dira, sistema horiek kudeatzera eta mantentzera bideratuta.

Honela azpimarratu du Pedro Ojedak, Kolonbiako Instituto Mayor Campesino (IMCA) erakundearen kideak: *“Hiru akueduktu komunitario eraikitzeaz gain, haiek hornitzen dituzten ur iturrietan buruzko gaitasunak indartzeko eta ingurumena kontserbatzeko prozesuak sustatzen ditugu”*. Proiektu horren bidez, IMCAk, bere aliatua den Alboan euskal GKEarekin batera, edateko urrez hornituko ditu Cauca Haraneko Departamentuko hiru nekazari komunitatetako 1.157 pertsona.

Ildo beretik hitz egiten du Ada Urbinak, Serso San Viatorreko aldekidetako kideak: *“Proiektuak hiru alderdi garrantzitsutan eragiten du: ura etxeetarako eramateko sistemaren eraikuntza fisikoa, mikroarroaren zaintza eta babesa –proiektuaren birika dela esan daiteke–, eta sistema horretan jardungo duten pertsonen gaitasunak prestatzea”*. Atlantida departamentuko Jutiapa udalerriaren egingo den esku hartzea 263 familiatara iritsiko da.

Ikaskuntzak

Gasteizko Haaly Pular, Kolonbia-Euskadi eta Nazioarteko Elkartasuneko GGKEen partzuergoak, BECTI ingeniariarekin batera, bultzatzen duen proiektu bat Héricon garatzen da, Ginea Konakryn: *“Ur hornidurako sistema bat eraikitzen ari gara Hericon, hamabi putzurrekin,*



SERSOK lagatako irudia

3.052 inguruko biztanlerentzat, eta horietatik %56 emakumeak izanik”, azaldu du Mamadou Sadiou Balde zuzendari teknikoak.

Emakumeek eta neskek sistema horien diseinuan, kudeaketan eta mantentze lanetan parte hartzea izan zen jardunaldien ardatz nagusietako bat, uretarako giza eskubidea urratzeak emakumei eta neskei eragiten dielako bereziki.

Topaketan, aipatutako erakundeez gain, Euskal Fondoak eta Medicus-mundi Arabak eta haien aldekidetako parte hartu zuten, aurrez aurre eta online ere bai. Taldeak AMVISAK Araka, Krispiña, Gorbeia eta Miñaon dituen instalazioak bisitatu zituen. Trukeak eta bisitekin ideia batzuk eman dizkie bertaratuakoei. Horrela, Gineara, eraikitzen ari diren putzuen “arazketarako ideia batzuk” eramango dituzte.

Ur etenaldiari buruzko informazioa

Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, AMVISAK hiriko ura banatzeko sarea hobetzeko obrak egiten ditu. Batzuetan, obra horien ondorioz, hornidura eten egin behar izaten da noizean behin. Lanak amaitu ondoren berrezarriko da zerbitzua, aldezturik abisatu gabe.

Obretan dagoen eremu batean bizi bazara, www.amvisa.org web orria duzu eskura. Abisuen atalean, ur-mozketarik planifikatuta dagoen jakin ahal izango duzu, eta, kasu horretan, ukitutako atariak, hornidurarik egongo ez den eguna eta orduak.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org